

IÑAKI ARREGI IKERKERA BEKA. EPAIMAHAIAREN EBAZPENA.

Iñaki Arregi ikerketa bekaren bigarren deialdira aurkeztu diren lanak aztertuta, oinarrien arabera epaimahaia osatu behar duten erakunde antolatzaileen ordezkariak elkartu ziren atzo, Azpeitian, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen egoitzan.

Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Kontseiluaren eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen ordezkari banak osatu dute epaimahaia, eta aurkeztu diren zortzi lanak aztertuta,

honakoa

ERABAKI DU EPAIMAHAIAK

Honako bi ikerlanak saritzea, Iñaki Arregi ikerketa bekaren bigarren deialdian:

- **Herri euskaldunak diseinatzen. Eragin linguistikoaren manuala arkitekturan eta hirigintzan.** Egilea: Saioa Zuazubiskar.
- **Euskal gazte hiztunen hizkuntza-autoestimua: faktoreen analisia eta egoera iraultzeko proposamena.** Egileak: June Furundarena, Leire Sanchez eta Jon Izeta.

Bekaren oinarrietan zehazten den moduan, gaurtik hasita 12 hilabeteko epea izango dute saridunek ikerketaren emaitza idatziz aurkezteko.

Lana garatzeko, berriz, 6.000 euroko laguntza jasoko du ikerketa bakoitzak.

Bi lan hauek saritzeaz gain, epaimahaiak berariaz nabarmendu nahi izan du bigarren deialdi honetan jasotako proposamenen kalitatea eta garrantzia. Zehazki, udalerri euskaldunen garapen sozioekonomikoarekin eta egoera soziolinguistikoarekin lotutako “lan benetan interesgarriak” izan ditu epaimahaiak esku artean, eta “ezinbestean bi lan soilik saritzera behartuta, interes handiko beste zenbait lan bidean geratu dira oraingoz”.

Azpeitian, 2021eko azaroaren 17an

Iraitz Lazkano Garitaonandia, UEMako lehendakaria